

Kultura eta aniztasun zeharkaldia

Abian da hamabigarren Atlantikaldia, igandera arte. Kulturaren eta ondarearen askotariko adierazpideek bat egingo dute beste behin Erretereria-Oreterako zabalguneta eta txokoetan · 19-26

OSTIRALA, 2025ko IRAILAREN 19a

**Atlantikaldia
2025**

ERRETERERIA-ORERETA

• OARSO BIDASOKO •

HITZA



Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA



943 634 536



www.goieko.com

Atlantikaldia
gozatu!

Askotariko musika eta kulturen 'Zeharkaldia'

Musika eta kultura barra-barra eta denaren ardatz, aniztasuna. Atzotik bete-betean dago murgilduta Erreteria-Oretera Atlantikaldian. *Zeharkaldiak*, hori da aurtengo musika jaialdi eta kultur topagunearen leloa. Leloarekin lotuta adierazi du Aizpea Otaegi alkateak zeharkaldiak fisikoak edota bizipenetan, emozioetan, esperientzietan oinarritutako zeharkaldiak izan daitezkeela: «Hori da, aurtengo Atlantikaldiaren gonbidapena, gure mugetatik harago gure buruak zeharkatzen eta beste batzuekin elkar zeharkatzeko, eta horretarako aukera ugari emango dizkigu jaialdiak. Bestetik, zeharkaldiak ere badira fisikoak, eta balioan jarri nahi ditugu oro har migrazioak, bai garai batekoak, historikoak, baita egungoak ere, migrazio horiek egiten gaituztelako tokian toki, herri aberatsagoa eta anitzagoa».

Zeharkaldien olatu handia gertatzea espero zuela ere adierazi zuen Otaegik, eta atzo hasitako jaialdiak nabarmen

Askotariko musika eta kulturen agertoki bihurtu da Erreteria-Oretera. Atlantikaldiaren 'Zeharkaldiak' arrastoa utziko du, hamabigarrenez.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

utzi du hala izango dela, «kulturalak transmititzen digun horrek guztiak zeharkatzen gaitu: bizipenek, harremanek... eta horretarako testuinguru berezia izango dugu». *Zeharkaldia* leloak, gainera, Palestinari keinu egin nahi diola ere azaldu zuen aurkezpenean Maite Gartzia Kultura zinegotziak. Horren erakusle da Itsasargi Nagusiak jaialdi hasierarako atzo hartu zuen kontzertua: Sol Band talde palestinarra aritu zen oholtza gainean Olatz Salvador, Eñaut Elorrieta, Ines Osinaga eta Arkaitz Minerrekin batera. Iaz zi-

ren emanaldia egitekoak, baina Gazako egoerarengatik bertan behera utzi behar izan zuten kontzertua; aurten taldekide denak elkartu ahal izan dira Palestinaren aldeko mezua zabaltzeko, eta kontzertura bildutakoen elkartasuna jasotzera.

Hamabigarren aldia du atzo hasi eta igandera arte iraungo duen jaialdiak, eta lehen ekitalditik egin bezala, ezinbestekoak izan dira, honako aldian ere, eragileak. Atlantikaldiaren funtsezko ezaugarria da eragileen parte hartzea eta horien aniztasuna.

Lau agertokietan hamaika ekitaldi izango dira. Itsasargi Nagusia —Agirre Lehendakariaren plazan—, Pambe-



ERRIOTIK, HERRI.
BIBA ATLANTIKALDIA!



**orereta
ikastola**
AURRERA!



www.oreretaikastola.eus



le kolonbiarrak eta Laura Penagos, eta Muchachito Bombo Infierno kataluniarak eta Pirata ariko dira gaur; kanpoak eta bertakoak bakarrak eta errepikaezinak diren emanaldiak eskaintzen Atlantikaldian. Bihar, berriz, agertoki nagusi horretan Marokotik heldutako Aita Moun Amour eta BihoTX, eta Portugalgo Kumpainia Algazarra eta Mirua taldeak. Igandean, Herri Arte Eskolak *Okzitaniar konexioa* eramango du taula gainera agertoki berean.

Herrixka, Kale Kaia eta Herriko Plaza
Itsasargi nagusian musika erruz, bertan ariko dira jaialdiaren kartel buruak, baina ez hor bakarrik. Jarduera parte

Atlantikaldiaren aurtengo egitaraua osatzen lagundu duten eragileekin batera hilabete hasieran egindako agerraldia. Atlantikaldia

hartzaileei begirako Herrixkan —Foru plazan—, artista urbanoen espazioa izango den Kale Kaian—Panier— eta emanaldi intimoagoak hartuko dituen Herriko Plazan ere erruz entzungo dira askotariko musika doinuak. Izan ere, hori ere bada Atlantikaldiaren ezaugarrietako bat, adin guzietako eta gustu guztiak asetzeko moduko egitarau anitzak ontzea. Gazteei begirako Kalekaia agertokian, Aiert, Castazabal, Labar eta Papa Cumbia gaur; bihar, Anixe, Aimar Z, Kiliki eta Makeda.

Aurtengoan ere, nabarmen jartzekoa da emakumeen presentzia jaialdian. Izan ere, horiek asko-askotan, gehiegitan, bigarren plano batean izaten dira agertokietan, eta Atlantikaldiak lanketa berezia egin du horien presentzia nabarmena izan dadin; aurten ere hala izango da, askotariko jatorrietako sortzaileak ariko dira jaialdian, eta emakumeen presentzia indartsua bermatuko du Atlantikaldiak.

Musika eta dantza emanaldiekin batera, literatura, gastronomia eta haur zein helduentzako ikastaro eta

tailerrak antolatu dituzte: zazpi bisita gidatu ezberdin eskura, Emakumeak Mixean Djing tailerra Emakumeen etxean, paddle surf ikastaroa Oiartzun ibaian barrena, kultur aniztasuna koinatzeko Sukaldian iniziatiba arrakastatsua, edota adinekoen egoitzetako erabiltzaileekin bizikleta irteerak. Denetarik, denentzat, eskura; parte hartzeko tailerretan aurretik izena eman behar da.

Egun pasa bikaina egiteko osagai guztiak eskura izango dira; izan ere musika eta kulturaz gozatzeko aukerari, aukera gastronomiko zabala gehitu behar zaiolako, bai herriko ostalaritza saltokiek eskaintzen dutena, zein Herrixkaren bueltan izango den Gastronearekin. *Foodtruck* gunea izango da bertan igandera arte, nazioarteko mokaduak dastatzeko.

Herri kanpotik gerturatu behar duten horiei guztiei eskaera luzatu diete antolatzaileek: baliatu dezatela garraio publikoa. Izan ere garraio zerbitzu zabala dute igandera arte *zeharkaldien* erdigune bilakatu den Erretereria-Oreterara etortzeko. ■



Informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: **atlantikaldia.eus**

@landare_herrikotaberna

LANDARE
HERRIKO TABERNA

Lete
itzulpenak
www.lete.net

administrazioa . publizitatea
liburuak . enpresa

Tel.: 943 515 346 • lete@lete.net
www.lete.net

Gozatu Atlantikaldia!

Astelehenetan:
9:00-13:00 / 15:00-19:00
Asteartetik ostegunera:
9:00-20:00
Ostiraletan: 9:00-15:00

Tel.: 943 52 41 61.
Gure Zumardia 24, behea.
PASAI ANTZO

Fernández - Valderrama Egaña
HORTZ KLINIKA
www.fernandezvalderramaegana.com
info@fernandezvalderramaegana.com



Imanol Saiz Gomez de Segura

«Euskal Herrian ez gara bakarrik sentitzen»

RAHAF SAMALI SOL BAND TALDEKO ABESLARIA

Atlantikaldian eman du kontzertua Sol Band talde palestinarrek, atzo. Palestinako folk eta popa uztartuz, bertako kulturaren erakusleho handia bilakatu da seikotea nazioartean. Musika da haien erresistentziarako tresna.

URKO IRIDOY ALZELAI

Genozidioaren lehen hilabeteak Gazan pasa zituzten, hura da eta haien etxea.

Momentu oso latzak dira haientzat, haien familiak oraindik Gazan daudelako. Halere, Rahaf Samalik ez du irribarrea galdu. Eskerrak emanez agertu da elkarriketara, haien istorioa kontatzea ezinbestekoa da eta seikotearentzat.

Euskal Herrian jada denbora bat da-ramazu, nola sentitzen zara hemen?

Euskal Herrian egotea ohore bat da niretzat. Hemen Palestinaren aldeko mugimendu handia dago. Ozenki hitz egiten da gure herriari buruz, gure banderak edonon ikus daitezke eta denek dute gogoia Palestinaren alde borrokatzeko. Horrek sentiarazten dit ez nagoela bakarrik, gure jendea eta Gaza ez daudela bakarrik. Nire etxea bezala ulertzen dut Euskal Herria. Ez da nire bigarren etxea, etxea baizik. Oso eskertuak gaude hemen bizi dugun guztiagatik.

Orain, bakarrik ez sentitzea da garrantzitsuena zuentzat, ezta?

Euskal Herrian ez gara bakarrik sentitzen. Hemen jendeak gure egoera ezagutzen du, genozidioa hasi baino lehenagotik ere, eta hori gauza garrantzitsua da.

Nola deskribatuko zenuke Sol?

2012an Gazan jaio eta hazi zen musika talde palestinarra gara. Folk eta pop musikak uztartzen ditugu gehienbat, beti ere gure herriko musika eta kultura mantentzeko apustua eginez. Gure musikaren eta letren bidez gure bizi-



tzari buruz hitz egiten dugu, musika baita gure boterea.

Zer da kontatzen duzuen?

Gure abestiak ez dira edonork egin ditzakeen abestiak. Oso pertsonalak dira, gure istorioak kontatzen dituztelako. Genozidioaren aurreko eta ondorengo bizipenak, Gazatik atera behar izan genuenean izandako istorioak... Gure sentimenduak abestietan irudikatzen ditugu, Gazan gertatzen denari eta gure jendeak bizi behar dituen gauzei buruz hitz eginez. Mundu osoari kontatzeko istorioak dira.

Nola sentitzen zarete munduan zehar Palestina ordezkatzeko ari zaretenean?

Alde batetik, oso eskertuta, eta bestetik, ardura handia da, are gehiago genozidioa hasi denetik. Gazan hazi den palestinar abeslaria naiz, bere etxea eta familia atzean utzi behar izan zituen, genozidioa hasi eta zazpi hilabetetara. Atzean utzi genituen bagenkielako bagenuela munduari mezu bat partekatzeko ardura. Munduak jakin behar du ez garela soilik zenbakiak, asko errepikatzen delako ehunka palestinar hil direla. Ez, pertsonak gara, palestinarrek gara, eta hori zabaltzea oso garrantzitsua da. Palestinar talde bat gara, bizitza maite dugu, itxaropena mantentzen dugu eta bizitzari abesten diogu, sufritzen egon arren. Zaila da hori ulertzea, ez baitira erraz uztartzen diren gauzak, baina hemen gaude, eta gure musika abesteko gogo dugu, gure lurra aske ikusteko nahiarekin. Badakigu noizbait aske izango garela.

Gaur egun, Palestina barnean kultura egin daiteke?

Hitz egin beharreko gauzarik garrantzitsuenetakoa da hau. Genozidioa baino lehenago Gaza bizitzaz beteriko lekua zen. Gu, gure instrumentu txikiak musika egiteko elkartzen ginen lagun talde bat izan gara betidanik. Ez zen bizitza onena, ezin dugu alderatu Gazatik kanpo bizi den inorekin, baina guretzat bizitza zen. Orain, lehen genuen hori faltan botatzen dugu, eta hori berreskuratzeko jarraitzen dugu borrokan.

« Genozidio bat gainean izan arren, pertsonak gara »

« Kanpoan gutaz [palestinarretaz] hitz egitea oso garrantzitsua da »

Baduzu ametsik?

Genozidioa hasi denetik, hori bera gelditzea nahi dut. Nire familia ongi egotea amesten dut, eta nire inguruko jendea haien bizitza normalera itzultzea nahi dut. Gizakiak gara eta merezi dugu soilik gure kezketan, gure bizitza profesionalean eta halakoetan pentsatzea. Gaur egun askok duten kezka handiena da ea non lo egingo duten jakitea. Laburbilduz, nire jendearen ongizatea nahi dut, eta Sol moduan,

gure musika mundu osotik hedatzea, han eta hemen kontzertuak emanez, beti ere Palestinako bandera eskuan edukiz eta astinduz.

Beti mantentzen duzue borrokarako indarra?

Ez da erraza. Orain bizitza on bat daukat. Arropa berria dut, badaukat zer jan... bizitza erraza da. Baina nire familia han dago, eta sufritzen daude, gose dira, ihesean dabilta... ez da egoera jasangarria. Astelehenean nire etxea lehertu zuten, eta ni hemen nago, abesten. Ez dakit nola egiten dugun, baina uste dut palestinarrok badugula indar berezi bat. Nik ardura handia dut nire familiarekiko, eta beraientatik indartsua izan behar naiz, jarrera ona eduki behar dut, haiek niregatik asko jasotzen dute eta emozionalak. Haien itxaropena naiz.

Genozidioari ikusgarritasuna ematea eta hari buruz etengabe hitz egitea baliozkoa da?

Kontziente gara hitz egiten ez dela genozidioa amaituko, baina palestinarrei bakarrik ez gaudela sentiarazten diguzue, eta hori, lehen esan dudan moduan, oso garrantzitsua da. Kanpoan gutaz hitz egitea oso boteretsua da Gazako pertsonentzat, hori behar dugulako. Genozidio bat gainean izan arren, pertsonak gara.

Munduan zehar egiten diren protestek badute eraginik Gazan?

Bai, noski. Sare sozialak baditugu bertan. Gaur egun, mugikorra boterea da. Oso garrantzitsua da bertan dauden pertsonen babesa ematea, sentiaraztea ez daudela bakarrik. ■



Proiektu eta berrikuntza orokorrak · Arreta pertsonalizatua

BULEGOAK: Biteri kalea 3, behea . **SUKALDEEN ESPOSIZIOA:** Biteri kalea 2, behea
943 52 78 01 - 665 727 764 - www.albistur.es



Errenteria-Orereta itsas hiribildua izan zenekoa

**Atlantikaldiaren barruan hainbat bisita gidatu
antolatu dituzte; horietako batek udalerrriaren
iragan itsastarra azalduko du, historia zinez
kitzikagarria agerian jartzeko.**

OARSO BIDASOKO HITZA

Errenteria-Oreretaren sustrai itsastarrak ezagutzeko aukera emango dute Atlantikaldiaren barruan antolatutako bisitetan. Denera antolatu diren zazpi bisitetako bat da *Oreretatik itsas hirira* bisita gidatua; bihar eta igandean egin ahalko da —bietarako plazak agortu egin dira— gaztelaniaz eta euskaraz, hurrenez hurren.

Bisita horretan parte hartzen dutenek, udalerrriaren historia ezagutzeko aukera izango dute Orereta Oiartzungo bailara osatzen zuen auzoetako bat zenetik, Altzibar, Elizalde eta Iturralderekin batera, XVII. mendera arte. 1320. urtean izendatu zuen hiribildu udalerrria Alfontso XI.ak Donostiako forua eman zionean. Hiribildu titulua lortuta, bai-

larako buru politikoa bihurtu zen. Erdi Aroan eta XVII. mendearen erdialdera arte, hiribildu harresitua urarekin kontaktuan zegoela ikasiko dute besteak beste bisitariak, eta Errenteria-Orereta, beraz, itsas hiribildua zela; gaur egungo Gamon Zumardira eta Foru plazara iristen zen ura, eta agiri historikoei jasotzen dutenaren arabera, sarritan itsasgorek kale eta etxeetan kalteak eragin zituzten. 1535. urtean elizako kanpandorra ere kaltetu zela aipatzen da horietan. Garai hartako hiribildua beheko kaleak, erdiko kaleak, Eliza kaleak eta Goiko Kaleak osatzen zuten.

XVI. mendearen bukaeran iparralderantz zabaldu eta Santxoenea, Andra Mari eta Kapitain Enea kaleak eraiki zituzten. Harresia ere zabaldu zuten,

orduan, hiribildu osoa babesteko; bost ate zituen sartzeko. Bi lurrekoak: Frantziako edo Santa Klarako atea —Erdiko kalearen bukaeran—, eta Nafarroako, Sanjuango edo Gaztelutxo—Goiko kalearen bukaeran— izenez ezagutzen zuten atea. Uretakoak, hiru: Ugarritzeko atea—Errenteria Lezorekin komunikatzen zuten—, Itsasoko atea —Kapitaneia, Andra Mari eta Santxoenea kaleak batzen diren tokian—, eta Errenteriako atea, —Herriko Plaza eta Foru plaza elkartzen diren tokian—.

Matxin Errenteriakoaren jauregia

Hiru sute handik ia hiribildu guztia suntsitu zutela —1476, 1512 eta 1638 urteetan— ere ezagutuko dute bisitariak, baita XV. mendearen bukaeran hiribildua Andaluzia, Bartzelona, Frantzia, Italia eta bereziki Ingalaterrako Bristol hiriarekin harremanetan izan zela, eta udalerriko marinel, itsas kapitain eta merkatariaik Tunisia edo Algerian aurki zitezkeela garaian.

Azalpen horiek eta beste asko jasota, tokian-tokian historia ezagutzeko aukera izango da gidaren eskutik. Beheko kaletik pasako dira, hori da iragan itsastarra hobekien mantendu duen kalea, etxeetako atarietako blasoiek erakusten duten bezala. Handik, Erdiko kalera joko dute, Frantziako atea zen tokira. Hiribilduak izandako suteen gaineko informazioa jasoko dute, besteak beste, 1512. urtean izandakoan hiru etxe bakarrik salbatu zirela. Horien artean, Matxin Errenteriakoa delakoaren jauregia, gaur egun Kapitain Etxea den tokian zegoena. Besteak



www.koldomitxelenaikastetxea.com

KOLDO MITXELENA

**ELKARREKIN
ARRAUN!**

Herri Ikastetxea

Fernandez de Landa z/g - Errenteria-Orereta
Tel.: 943 89 91 87 - 012905aa@hezkuntza.net



Tejidos
Ami
Oihalak

@tejidosamioihalak

**Martin Etxeberria kalea, 4.
Errenteria.**

Tel.: 943 52 55 84

Torrekua dorretxearen eraikitze urtea ez da ezagutzen, baina dokumentuek erakusten dute 1494rako berritua zegoela. Ikerne

beste Bizargorriren aurka borrokatu zen Matxin Erreteriakoa 1521ean, eta frantsesen kontra Hondarribiaren defentsan, 1523an.

Handik, Herriko Plazara egingo dute jauzi, sorrerako Erretereria ezagutzeko. Bertan den Jasokundeko Andra Mariaren elizaren lehen aipamenak XIV. mendekoak direla ezagutuko dute, 1364 ingurukoak, baita Oiartzun Erreteriarren menpe zegoela politikoki zein ekonomikoki hiribilduaren sorreratik, baina erlijio kontuetan Oiartzunek agintzen zuela.

Eliz kalean izan zen Txikitoren fonda eta harengatik izena hartu zuen Txikitoren kantoiaren gaineko berri jaso eta Orereta kalean barrena Arranbide jauregia, Torrekua eta Morrontxo dorretxeetara helduko dira, Goiko kalean.



Herriko Plaza eta Foru plaza izango dira hurrengo geltokiak, bi kale horiek bat egiten duten lekuan zegoen Erretereriako edo Donostiako atea, eta portua zaintzen zuen. Hiribildura iristen ziren produktuak gordetzen zituen eta horien gaineko zergak kobratzen ziren lonjaren ondoan zegoen.

Kapitain Enea kaleko Kapitain Etxea-

ren gainekoak kontatuko dituzte bukatzeko; Erretereria-Oreretako etxe zaharrenetako bat da hori. Eta herriarrentzat oso esanguratsua den Mikelazulo pasagunean ere egingo dute geldialdia bisitaldian; izena nondik datorrion jakin nahi duenak *Oreretatik itsas hirira* bisita gidatuan aurkituko du erantzuna. ■

ARKATZA
taberna
Itsasoari begira

- Gamon Zumardia •
- ORERETA •
- Tel.: 943 522 862 •

IKUSI MAKUSI
Zure opari denda

Jostailu hezitzaileak
Punta-puntako markak
Kalitatezko jostailuak

Tel.: 943 52 88 53. Alfonso XI kalea, 3. Lokala. Erretereria - Orereta

**OIHALAK
ARTILEAK
IKASTAROAK**

Atlantikaldian, harira!

Nafarroa hiribidea, 28
ERRETERIA-ORERETA
tel.: 843 67 17 34
@blazmo_wool

KATERING
Gutizi
ERAMATEKO

- Eguneroko menuak astelehenetik ostiralera.
- Eramateko janaria, gosariak, tostadak etab.
- Etxerako menuak ditugu. Kontsultatu!

www.gutizicatering.com

Bizente Elizegi, behea (Niessen).
Juan de Olazabal, 11, behea.
Tel.: 943 34 44 66 - 621 14 70 35
info@gutizicatering.com

@gutizi_kateringaramateko



EGITARAU OSOA HEMEN

labur.eus.oarsoagenda

OREKA ETA HERRIA, PADDLE SURFAREKIN

LARUNBATEAN. Oiartzun ibaia da egun Errenteria-Oreretak itsasora joateko duen ateragune naturala. Herriaren izaeraren zati da ibaia, erdialdea zatitu baino, batzen duelako. Larunbateko paddle surf jardueraren bidez udalerrria beste era batera ikusteko aukera izango da, oreka mantentzeko saiakera artean: 17:00etan, 18:00etan eta 19:00etan dira saioak, 7-8 urtetik gorako haurrentzat.



Atlantikaldia



Atlantikaldia

SUKALDEKO SU ARTEAN HERRI ANITZA EGOSTEN

IGANDEAN. Atlantikaldiaren klasikoeetakoa da Sukaldian jarduera. Igandean (hilaren 21ean) izango da aurtengoan: 10:00etan, herriko elkarte gastronomikoetan hainbat jatorritako errenteriarrek euren tradizioari lotutako jakiak egingo dituzte, eta ondoren (13:30) Herrixkan banatuko dituzte. Maroko, Aljeria, Mexiko, Gambia, Ukraina, Mongolia, Ijito Herria, Galizia... Denak dasta daitezke etzi.

FAMILIAN BIZITZEKO DA ATLANTIKALDIA

EGUNERO. Atlantikaldia kalean eta familian bizitzeko jaialdia da. Jarduera gehienak egunez dira, eta lau gune iraunkorretatik harago doaz horietako asko. Askotarikotailerrak, jolasak, familia giroko musika emanaldiak, dantzarako tarteak... Kultura eta artea denentzat, ingurumenarekiko errespetuz eta sorkuntzaren nahiz bizikidetzaren bidetik.



Atlantikaldia

Beerlagun



www.oarsoak.com

UGALDETXXO INDUSTRIAGUNEA - ZUAZNABAR KALEA 137. OIARTZUN
TEL. 943 49 01 62. oarsoak@oarsoak.com

- Haur eta helduentzat Terapia Estrategiko Laburra
- Banakako, bikote eta familia terapia



**JAKOBE
PSIKOTERAPIA**
620.12.24.29

Jakobe Batanero Alvarez
Psikologoa GZ 1579
Xenpelar kalea 6, solairuartera,
5. bulegoa. Errenteria
www.jakobepsikoterapia.com

ATLANTIKALDIA

zeharkaldiak-travesias

Errenteria 18-21 Iraila
Septiembre

18 Osteguna
Jueves

Sol Band + Eñaut Elorrieta, Olatz Salvador,
Ines Osinaga eta Arkaitz Miner
Postal Kolekzionistak • BorderHack

19 Ostirala
Viernes

Lemak • Aiert • Jumelage • Bidenabar
Pambelé + Laura Penagos • CastaZabal
Muchachito Bombo Infierno + Pirata
Eider • Labar • Papa Cumbia

20 Larunbata
Sábado

Errenteriako Musika Banda eta Mugan
Aimar Z • Aita Mon Amour + BihoTX • Anixe
Ramon Mirabet • Josu eta Maita • Kiliki
Kumpania Algazarra + Mirua • Luke Armstrong
maKeda

21 Igandea
Domingo

Munduko Mixtape x Txino
Herri Arte Eskola

Gastronomia • Dantza • Tailerrak • Kirola • Sorkuntza • Poesia
Bisita gidatuak • Paddle Surf • Bertsolaritza



@atlantikaldia2025
atlantikaldia.errenteria.eus

kultur topagunea
eta musika jaialdia

encuentro entre culturas
y festival de música



atlantikaldia

2025

kultur topagunea
eta musika jaialdia



atlantikaldia

2025

kultur topagunea
eta musika jaialdia



atlantikaldia

2025

kultur topagunea
eta musika jaialdia